

Etxea beti ondo eta beti prest, bailarako profesionalei esker

Egunerokoak jaten gaitu askotan, eta etxebizitzaren zaintzarako eta mantenurako tarterik ez dugu izaten. Baina, aurrerantzean, hori ez da kezkatzeko arrazoia izango. Izan ere, Urumea bailarako hainbat setoretako profesionalek lagunduko digute guztia punttu-punttuan izaten.



Etxeko goxotasuna zein feskura mantentzeko kalitatezko leihoak, Alkainek.

Etxean bezala inon ez. Etxea da goxotasuna, etxea da ezkutalekua, etxea da egun nekagarria izan osteko lasaitasun gunea eta etxea beti da etxe. Etxe bakoitzak dauka istorio bat, estilo bat, eta jabe edo bizitzen ari den norbanako bat. Horregatik, Kronikak etxea nahi moduan jartzeko, margotzeko, eraikitzeko edo berreraikitzeko aukerak jarri nahi ditu herritarren eskura, zuen eskura. Zeure momentuko etxea ametsetako etxe bilakatu dezakezu, eta horretarako dauke profesionalak. Bailaran badi- ra batzuk, tartean, Alkain, Telemar, Kelma eta Basmodec.

Bailarako gremio bakoitzak, etxea modu eroso batean jartzeko behar zehatzei erantzuten die: «kalitatez, eta zerbitzu paregabea» eskainiz. Etxean, esaterako ezinbestekoa da instalakuntza elektriko egokia izatea, eta horretarako bailaran dauzkagu Telemar eta Kelma.

Telemarri dagokionez, etxebizitzetara zein lokaletara bideratuta dauden instalakuntzak egiten dituzte, besteak beste, bideo-porteroak, antenak eta etxe barruko sareak. Kelmak ere askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu, hala nola, tentsio baxuko instalakuntza, mantenua, bergailuen instalakuntza...

Koloreak argitasuna, lasaitasuna, edo armonia eman diezaioke etxeari, eta horretan aditua da Basmodec. Aholkularitza da bere indargunea, ezer erosi aurretik, bezero bakoitzari gomendatzen baitio egokiena zaion aukera. Eskarmentu haundia dauka horretan, eta eskaintza zabala dauka.

Leihoak, kalitatezkoak eta beharrezkoak

Etxeko goxotasuna barruan gordetzeko, edo freskotasunak ihes ez egiteko garrantzitsuak bezain beharrezkoak dira leihoak.

Eta horretan aditua da Alkain, leihoen aholkularitzan, bezeroak behar dituen leihoak neur-tzen, diseinatzen, fabrikatzen eta instalatzen. Mota askotako leihoak aurkitu daitezke bertan, hala nola, gidaridun leiho eta ate-orriak, irekiera normalekoak edota ardatz aldagarrikoak. Leiho horiei motordun pertsiana erantsiz gero, erosotasun haundiagoa bermatzen du Alkainek. Eta intsektuekin arazorik izanez gero, eltxo-sarea dutenak aukeratzeko aukera ere eskaintzen du, baita markoetarako kolore-sorta zabala eta aukerako kristal-motak ere.

Etxeko tenperaturaz gain, badago garrantzi haundia duen beste faktore bat: isolamendua. Alkain aditua da gai honetan, eta etxe batek behar duen isolamendurako, punta-puntako leihoak eraikitzen ditu, beti bezeroen beharretan oinarrituz, eta bezeroen ongizatea helburu izanik. **k**

Kalitatea eta profesionaltasuna, Alkainen



Iñaki Sudupe Alkaineko leihoen saileko langilea.



Punta-puntako leihoak dituzte Alkainen.

ASTIGARRAGA BABESTUTAKO EDUKIA

1951tik, etxeetarako materialaren salmentan buru-belarri jardun du Alkainek, punta-puntako materialak eskainiz, eta oraindik ere hala jarraitzen du. Esperientzia zabalari eta produktuen aniztasunari eta kalitateari esker, Urumea bailaran erreferente dira. Gizpuzkoan bi egoitza daude eta horietako bat Astigarragan kokatzen da.

Eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko xehetasunak emateaz gain, etxeetako leihoen garrantziaz ere jardun du Iñaki Sudupek, Alkaineko merkatariak: «Guk eskaintzen dugu zerbitzu osoa. Hasten gara bezeroari eskaintzen leihoen perfilak, eta egia da denak dauz-kagula, hala nola, egurrezko leihoak, PVC leihoak, aluminiozko leihoak eta termofibrazko leihoak. Azken hau material berria da, eta oso aislamendu

ona ematen du, gaur egun punta-puntakoa den produktua, hain zuzen ere».

Era berean leihoen garrantzia azpimarratu du Sudupek: «kontutan izan behar da leihotik dena sartzen zaigula eta leihotik dena ateratzen zaigula. Beraz, gaur egun leiho on bat edukitzeak eta instalazio on bat edukitzeak sekulako garrantzia dauka. Gure eginkizuna, beraz, hori da, hasieratik amaierara aholkularitza ematea. Lehenengo neurketa egiten dugu, aurrekontu bat prestatzeko; gero, bezeroaren etxera joaten gara aztertzeko etxea nola dagoen eta zein leiho behar diren. Eta noski, etxearen beharrak kontutan izanik, leiho mota bat jartzen dugu edo beste bat». Leiho berriak jartzearen atzean prozesu bat dago, eta horretarako bidelagun paregabea da Alkain: «behin aurrekontua prestatuta, bezeroari azaltzen diegu zeintzuk diren gure pro-

duktuak, eta bezeroaren esku dago erabakia. Baina esan bezala, guk beharren eta etxearen arabera aholkatzen diogu bezeroari, bidean lagunduz».

Neguan, etxea goxo-goxo mantentzeko berogailua jarri ohi da, baina bero hori mantentzea, batzuetan, zaila izaten dela dio Sudupek, eta leihoen eginkizuna nabarmendu du: «Leiho bat aldatzea inbertsio bat da, neguan berogailua jartzen dugunean, kalitatezko leihoek beroa mantenduko dute, eta etxe konforta irabazten da. Leiho batek ematen digun aislamendua, oso-oso garrantzitsua da».

Alkain eta kalitatea

Sudupek, termofibrazko leihoek eskaintzen duen aislamenduaz jardun du, besteak beste: «gaur egun, aluminiozko leiho oso onak daude, baina aislamenduari dagokionez ez dituzte balore onak. Termofibrazkoak, aldiz, sekulako aislamendua

ematen dute. Leihoak, beraz, emango digu hotza eta beroa mantentzeko aukera, eta horrekin batera, balore garrantzitsu bat eskaintzen digu: etxe konforta. Gaur egun, leihoak, kristal doblearekin edo triplearekin eginak dira, aislamendua delako faktore garrantzitsu bat».

Alkainek eskaintzen dituen leihoak dira kalitatezkoak, gama altukoak eta prezio oso lehiakorrek. «Gainera, etxe pasiboaren ziurtagiria daukagu. Etxe pasiboak dira, urte gutxian tenperatura berdina mantentzen duten etxeak. Hortaz, leihoak garrantzia du, tenperatura mantentzen duelako. Beraz, guk ditugun leihoek, ziurtagiri hori daukate. Guk egiten dugu lan kalitatezko markekin. Beraz, produktuak oso kalitate onekoak dira» argitu du Alkaineko merkatariak.

Muntaien garrantzia

Puntako profesionalak osatzen

dute Alkain, eta ematen duten zerbitzua konpletua da: «hasierako aholkularitza hasi, eta amaierara arte, muntaia ere guk geuk egiten dugu. Leihoak garrantzi handia du, baina montajeak ere pisu handia du, nahiz eta leiho onak jarri, muntaia ez badago ondo, leiho horiek ez dute behar bezala funtzionatuko». Muntaiak egiterako garaian, kalitatezko materialak erabiltzen dituzte, esaterako, espumaz betetzen dute leihoa ipiniko den eremu guztia, pareta eta leiho artean aislamendu ona edukitzeko helburua izanik. «Alkainen ferreteria alorra ere badaukagu, beraz, lana egiterako garaian, kalitatezko materialak erabiltzen ditugu, punta-puntako materialengatik egiten dugu apustu, bai silikonak, bai espumak... Normalean guk erabiltzen ditugun produktuak ez dituzu beste leku batean aurkituko, adibidez, termofibra».

ALKAIN



Txalaka Pasealekua, 23
20115 Astigarraga

Tel.: +34 943 642 025
E-maila: info@alkain.com

ORDUTEGIA

Burdindegia eta eraikuntza:
07:30 - 13:00 eta 14:30 - 19:00
Larunbata: 08.00 - 13.00
Bainugelak eta sukaldeak:
10:00 - 13:00 y 15:00 - 19:00.
Larunbata: 10.00 - 13.00

Ardura, kalitatea eta efikazia, bailarako gremioen marka

Telemar Antenak

TELEMARElkano 13, Hernani
629 121 355 / 943 55 33 99

Telemarreko langilea, instalakuntza-lanetan.

HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Denda Elkano kaleko 13. zenbakian badu ere, Telemar Antenak Donostialde osoan egiten du lan. «Andoainen, Urnietan, Hernanin, Donostian... Inguru horretan aritzen gara», aipatu du Patricio Alda arduradunak. «Etxebizitzetara zein lokaletara bideratuta dauden askotariko instalakuntzak egiten ditugu: bideo-porteroak, porte-

roak, antenak, etxe barruko sareak, lokaletarako kamerak...», kontatu du.

Gainera, eskarmentu haundia dute horretan guztian, 52 urte baitaramatzate proiektuan buru-belarri. Eta, Telemar ireki zutenetik, berrikuntza ugari izan dituzte. «Hasieran, antenak ziren gure egiteko nagusia, baina, gizartea aldatzen den bezalaxe, gure eskaintza ere aldatu da. Egokitu beharra dago, eta horixe da egiten duguna».

Konpromisoa da Telemarren sena egokien definitzen duen hitza. Izan ere, herritarrek ondo dakite Telemarrera deitu eta, Patrik deia erantzutearan, berehalako arreta jasoko dutela. «Ahalegintzen gara beti hor egoten. Eta, bezeroren batek guk egiten ez dugun zerbitzu zehatzagoren bat eskatuz gero, bestelako gremioekin harremana dugunez, eskaera guztiei erantzuten saiatzen gara».



Etxebizitzak ahalik eta egoera hoberenean mantentzea dute helburu, bailarako gremioek.

Instalakuntza elektriko egokia bermatzea, irisgarritasuna ziurtatzea edota komunikatzeko aukera ziurtatzea. Horixe da, besteak beste, bailarako gremioen konpromisoa.

HERNANI ZERBITZUAK

Ettxera heldu eta giroa goxoa izatea, etxekoa atarira sartu eta seguru sentitzea, Interneten azkartasunez nabigatzea... Horrelako plazerak eta beharrak asetzen laguntzen dute, egunero-egunero, Urumea bailarako gremioek. Hain justu ere, behar bezainbeste zerbitzu daude herrian bertan, etxetik urrundu gabe. Eta, ezbairik gabe, kalitatea, bezeroekiko konpromisoa eta efikazia da indartsu egiten dituenak.

Egunerokoak jaten bagaitu ere, garrantzitsua da une batez gelditzea eta inguruari erreparatzea. Etxean, esa-

terako, ezinbestekoa da instalakuntza elektriko egokia izatea. Izan ere, hori bermatuta, segurtasuna eta produktibitatea ziurtatzeaz gain, energia ere aurreztuko dugu. Hori bai, instalazio on batek neurketa-protokoloen bidez frogatu behar du instalazioak ez duela ez ihesik ez gainkargarik. Eta horretarako behar da, hain zuzen ere, espezialisten laguntza. Kelma Elektrizitateak ia 40 urte daramatza sektorean, eta eskarmentu haundia du horretan. Eta, hori ez ezik, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu, guztiak elektrizitatearen bueltakoak.

Etxebizitza zaindu beharra dago, eta etxeko kide guztien premiei erantzuten saiatzeak ere guztion ardurara beharko luke. Laugarren pisuko A ateko amonari portaleko atea automatikoki zabaltzeko aukera jartzea, esaterako, edota hirugarren pisuko B ateko YouTuberrari Interneteko konexio azkarra bermatzea... Ba, horretan, egunero-egunero dabilta lanean Telemarreko langileak, zerbitzu zabala eta kalitatekoa eskainita. **k**



Kelmako langile guztiak, egoitzaren atarian.

Kelma Elektrizitatea

HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Kelma Elektrizitateak 1983. urtean ekin zion bideari, eta, ibilbide luze horren ostean, 40 urte beteko ditu datorren urtean. «1999. urtean, SL izatera pasaginen», aipatu du Aner Sanz hernaniarrak, enpresako gidariak. Une honetan, berak dauka Kelmaren jabetzaren gehien-

goa, eta ilusioz ekin dio erronkari. «Topera gabiltza lanean, eta, lanpetuta, baina oso-oso pozik nago. Hauxe da gustuko dudana, herritarrekin egotea, aholkuak ematea, eta ahalik eta kalitate haundieneko arreta eskaintzea».

Hernanin dute egoitza, Oarso kalean, eta aski ezagunak dira herrian, eskaintzen duten gertuko tratuagatik. Elektrizi-

tatean dira adituak, eta eskaintza zabala dute horretan: «Askotariko zerbitzuak eskaintzen ditugu: besteak beste, tentsio baxuko instalakuntza, aholkularitza, mantenua, berogailuen instalakuntza, ikerketak hainbat arlotan (argiztapena, zirkuitu laburra, elektrizitate galeren analisi integrala...), eta abar».

Mantenuaren bueltan, honako hauxe nabarmendu du Sanzek: «Ez gara konturatzen, baina beharrezkoa da noizbehinka instalakuntzak berrikustea. Arriskutsua izan daiteke eta, gainera, batzuetan, luzerako uzten bada, gero instalakuntza osoa aldatu behar izaten da. Orduerdiko kontua da, eta garrantzitsua da guztia txukun mantentzea, ezustekorik ez izateko». Horixe bera dio Legeak ere, «baina makina bat kontutan gabiltza gure egunerokoan, eta, normala denez, askori pasatzen zaie noi-

zean behineko berrikuspenak egitea».

Aipatutakoaz gain, punta-puntako arreta eskaintzen diete herritarrei. Izan ere, 24 orduko zerbitzua daukate, eta, beraz, «edozein larrialdi izanez gero, laguntzeko prest gaude beti», ziurtatu du Sanzek.

Eta handik hona ibiltzen dira Kelmakoak, Gipuzkoa lanerako gunen nagusia duten arren. «Gehienbat hemendik aritzen gara, baina Bizkaian eta Araban ere egin izan ditugu lanak, eta, puntuala izan bada ere, Asturiasen eta Galizian ere izan gara». Izan ere, etxebizitzak ez ezik, Kelmaren ardura dira, baita ere, merkataritza-lo-

kalak, industria-nabeak, bulegoak, ikastetxeak eta egoitzak. Zabala da, ezbairik gabe, Kelmak biltzen duen esparrua.



Kelmako belaunaldi aldaketa.

ELECTRICIDAD
KELMA
CALEFACCION

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera
08:00etatik 13:00etara eta
15:00etatik 18:30etara.
Asteburuetan, itxita.

Oarso kalea 1 (behea), Hernani.

943 55 38 58 /
650 940 749

kelma@electricidadkelma.com

Grixa, txuria, urdina, hezetasunaren aurkakoa, ekologikoa... Aukeratu ezinik al zabiltza?

Kolore bezain pintura mota beste daude, eta zaila izaten da, askotan, egokiena aukeratzea. Hala ere, logela edota etxebizitza bakoitzari behar duen hori ematea da gakoa eroso sentitzeko. Adi, aholkuak ematera gatoz eta!

URUMEA PINTURA

Etxebizitzako geletarako kolore egokia aukeratzea uste baino dilema haundiagoa izan ohi da batzuetan. Izan ere, etxe bat jantzik duten koloreen eta moten behin betiko aukeraketa egite-rakoan, zalantzak izaten dira nagusi, eta baita kideen arteko desadostasunak ere. Grixa, txuria, urdina, kolore ilunak, argiak, pintura ekologikoa, hezetasunaren aurkakoa, intsektuak uxatzekoa...

Lasai, makina bat aholku eta jarraibide daude aukeraketa egokia egiteko. Jarraian zerrendatuko ditugu horietako asko pausoz paso, beraz, adi, eta eutsi bukaerara arte:

Lehenengo pausoa: Garrantzitsua da koloreen eta tonalitategaren bueltan hausnarketa egitea. Hartu horretarako beharrezkoa den denbora, betiere kontuan hartuta zer erabilera mota egingo den gela bakoitzean (egongela, logela, eta abar). Izan ere, koloreak gelaren erabilgarri-

tasunera egokituta egon behar dute beti, eta ez alderantziz.

Bigarren pausoa: Ezer baino lehen, pintura mota aukeratu beharko da. Etxean haurrak baldin badaude, adibidez, ideia ona da paretak erraz garbitu ahal izateko pintura izatea. Modu horretan, helduek ez dute zertan gehiago kezkatu beharko. Edota, etxebizitza hezea baldin badugu, garrantzitsua izango da hezetasunen aurkako pintura mota aukeratzea. Ekologikoa ere badago, aromatikoa, intsektuen aurkakoa...

Hirugarren pausoa: Gelaren tamaina aintzat hartzea ezinbestekoa da. Kolore ilunak erabilita, gela txiki batek espazio murriztaren sentsazioa izango du. Aldiz, pastel tonuek, kolore argiek eta, batez ere, kolore txuriek kontrako efektua lortuko dute, eta gela horiek haundia goak direla emango dute.

Laugarren pausoa: Argitasunari arreta jartzea komeni da. Etxeak duen argi naturala, gela bakoitzak bereziki, kon-



tuan hartu beharreko faktorea da. Horretarako, aintzat hartu behar da etxebizitzak eguzkiarekiko duen orientazioa, gela bakoitzaren orientazioa (fatxada edo patio batera ematen duten ala ez), eta abar.

Bosgarren pausoa: Sabaiak margotzea funtsezkoa da geletan sortuko den argitasunerako. Ez da batere gomendagarria kolore ilunak aukeratzea, horrek argitasuna galtzea eragingo baitu. Edozein sabairako kolorerik gomendagarriena txuria

da, baina sabaiak apaindu nahi baditugu, kolore-nota bat erantsiz, adibidez, aukera ona da paretakoarekin ondo konbinatzen duen tonua erabiltzea, baina askoz ere tonalitate argiagoan.

Seigarren pausoa: Adi altzariekin. Dagoeneko aukeratuta baldin badaude edota gela barruan baldin badaude, idealena litzateke gelaren eta altzarien koloreak modu harmoniatsuan konbinatzea.

Zazpigarren pausoa: Azkenik, aurreko faktore guztiak

aintzat hartuta, koloreak aukeratzea baino ez zaigu faltako. Horretarako, RAL edo NCS kartak izango ditugu. Kolore-karta horietan, kolore-sorta haundia dago aukeran, eta era guztietako gustu estetikoetara eta beharretara egokituko dira.

Eta horrekin guztiarekin, amaituta! Etxeko geletarako eta egongelarako kolore guztiak aukeratuta dituzuenean, kalitate oneneko pintura erostea baino ez zaizue geldituko, punta-puntako emaitza ziurtatzeko. **k**



Basmodec



HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Aukera zabala dauka Basmodec pintura dendak, makina bat pintura kolorerekin eta motarekin. Gainera, Hernanin ez ezik, Donostian (Grosen, Antiguon

eta Amaran), eta Beasainen ere ditu egoitzak, eta publiko guztiei zuzendutako produktuak ditu. «Nahi dugu guztiek izatea pinturak eta gure produktuak erosteko aukera, eta, horregatik, kalitatea beti mantentzen

BERRIKUNTZAK ETA AUKERA BOROBILAK

Kotxeak margotzeko spray-ak dira Basmodec-en berrikuntza nagusia. Gainera, pinturaz gain, bestelako produktuak ere badituzte: besteak beste, paper pintatua eta zoru binilikoa.



bada ere, askotariko prezioak ditugu katalogoan.

Adituak dira horretan, eta aholkularitza da beraien indargunea. «Gustuko dugu bezeroei aholkatzea eta egokien doakiena eskaintzea», aipatu dute. «Batzuetan, edozein pintura erosteko joera dugu, aurretik kalitatea edota mota ondo aukeratu gabe. Baina, gero, ondo gelditzen ez dela ikusten dugu, eta orduan datoz kezkak». Horregatik, aholkularitza zerbitzua daukate Basmodec-en, eta, ezer erosi aurretik, bezero bakoitzaren egoera aztertzen

dute. Modu horretan, emaitza ona izango dela ziurtatzen dute.

Eta, pinturaz gain, bestelako produktuak ere badituzte aukeran. Hala nola, paper pintatua edo zoru binilikoa. «Obrarik egin behar izan gabe, zuzenean lurrean jartzeko materiala da, eta oso emaitza onak ematen ditu». Horrez gain, berrikuntza gisa, kotxeak margotzeko spray-ak ere badauzkate orain.

«Marka eta modelo bakoitzeko sprayak dira, eta kotxeak dituen markatxoak estaltzeko balio dute. Gainera, erabiltzeko errazak eta erosoak dira».

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera
• Goizeko 08:00etatik
arratsaldeko 18:00etara.

Akarregi poligonoa,
3A pabiloia. Hernani
943 52 16 50

